

Taldekeria

Zeruko Argia, 693. zk., 1976-06-20: 10.

Sorreratik taldekatuta datorren gizonak, behar-beharrezkoa du gero ere taldea.

Oinarrizko taldeak diren familian eta herrian jaiotzen den gizonak izpirituzko eta materialak diren jo-muga zabalagoetara arrixkatzen den bezain laster arkitzen da gizarteko sozial, erlijio, politika eta ekonomiak agintzen duten talde-moldez baliatu beharrea.

Baina gizonak ezin du taldekotasun honen aitzakiarekin, gizon bezala duen erantzun behar hau *gizatasuna*, galdu.

Gizona berez artoa denez, taldekeriak eraginda oraindik arroago bait da; taldekeriak sortzen duen giroak ez du entzuten, ez ulertzen, ezta gizona errespetatzen ere, eta gizona itsumen hontan erortzen denean gizon bezala elbarritu egiten da.

Hara faszismoa, nazismoa, komunismoa, lekuko.

Behar dugu herri barruan herritasunaren eta auzo-lanaren izpiritua indartu, baina taldekeria gure azken-ondamena bihur daiteke.

Norkeriak indibidualki ere badu gure artean indarrik sobera.